



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

## GOBERNU BATZARRA

2023.05.02

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Begoña Tolosa Mencia**

**Xarles Iturbe Pasaban**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Jose M. Villanueva Telleria**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren bian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

**Ez bertaratutako zinegotzia:**

**Xabier Balerdi Tolosa**

**1. Akta hauek onartzea:**

**2023ko apirilaren 4koa**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**2023ko apirilaren 18koa**

**Kontuhartzaile akzidentala:**

**Paulino Alonso Eraso**

**2. Onartzea I.A.M.k Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 7ko erabakiari aurkeztu dion administrazioarekiko auzi errekurtsioan pertsonatzea, non ez baita onartzen I.A.M.-k aurkeztutako berraztertze errekurtsioa.**

**3. Onartzea Tolosako udalerriko zenbait bide publikotan ibilgailuen aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeko (TAO) zerbitzu-kontratua arautuko duen esleipenaren kontratazio jardunbidea, eta lizitazioari hasiera ematea.**

**4. Onartzea 2022. urteko asfaltatze kanpainako hondakinen kudeaketa-plana zein segurtasun eta osasun plana.**



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

**5. Dekretu hauen berri ematea:**

**2023/889 Dekretua: 2023/8 faktura  
zerrenda.**

**2023/969 Dekretua: 2023/9 faktura  
zerrenda.**

**2023/992 Dekretua: 2023/10 faktura  
zerrenda.**

**1. AKTA HAUEK ONARTZEA:**

**2023KO APIRILAREN 4KOA**

**2023KO APIRILAREN 18KOA**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako aktak aztertu dituzte. Batzarkideek aho batez onartu dituzte.

**2. ONARTZEA I.A.M.K TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2023KO MARTXOAREN 7KO ERABAKIARI AURKEZTU DION ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN PERTSONATZEA, NON EZ BAITA ONARTZEN I.A.M.-K AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA.**

I.A.M.k Donostiako Administrazioarekiko 2 zenbakidun epaitegian, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri du honako erabaki honen aurka: Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 7ko erabakia, zeinaren bidez I.A.M.-k aurkeztutako beraztertze errekurtsua ez den onartzen.

Beraztertze errekurtsua enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoaren aurka tarteratu zuen, hain zuzen ere ez-ohiko prozesuak arautzen dituzten oinarri espezifikoaren aurka, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoak, zehazki Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuari buruzkoak, Administrazio bereziko eskalakoa, A1 azpitaldeko azpieskala teknikoa.

Honela, uztailaren 13ko 273/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea jarraituz, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosako udala 273/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan alderdi demandatu gisa agertzea.

**Bigarrena.-** Espediente administratiboa Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegira bidaltzea 20 laneguneko epean, Epaitegiko ofizioa eta erantsitako dokumentazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei jakinaraztea eta bederlatzi eguneko epea ematea, errekurtso honetan demandatu gisa pertsonatzeko aukera emanaz.

**Laugarrena.-** Tolosako Udala ordezkatu eta defendatzeko honako abokatuak izendatzea: Javier Hernaez Manrique eta Leire Lertxundi Beristain.

**Bosgarrena.-** Enplazamenduari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

### **3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIKO ZENBAIT BIDE PUBLIKOTAN IBILGAILUEN APARKATZEA KONTROLATZEKO, MUGATZEKO ETA ANTOLATZEKO (TAO) ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ESLEIPENAREN KONTRATAZIO JARDUNBIDEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

#### **I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako udalerriko zenbait bide publikotan ibilgailuen aparkatzea kontrolatzea, mugatzea eta antolatzea (TAO).
Unitate sustatzailea	Hiritarren Segurtasuna eta Udaltzaingoa Saila
Espedientea	2023SABI0002

#### **II.- AURREKARIAK**

**Lehena.-** Tolosako udaltzainburuak egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

ESKUBAC9276a-5d98-4871-a696-b74c710e6a47



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*

### **III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espedientearen unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Administrazio baldintza partikularren plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio-txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorritik; zerbitzu



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obrak edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak.*

*Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

**Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:**

Lehenena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 1.927.163,41 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

PPTO. BASE LICITACIÓN						VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	4 años sin IVA	4 años con IVA	primas
472.485,47	571.707,42	944.970,94	1.143.414,83	1.889.941,88	2.286.829,67	37.221,54
						1.927.163,41

Bigarrenena.- Kontratazio honetan ez

**da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrenena.- Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, 22.1 artikuluren b) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (215.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratzailearen profileen argitaratzeaz gain, beharrezkoa izango Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian argitaratzea.**

Laugarrenena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtsio bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz,

ESKUBAC9276a-5d98-4871-a696-b74c710e6a47



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, administrazio baldintza partikularren pleguaren I. tituluaren IV. Kapitulan eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

#### **IV.- ESPEDIENTE MOTA**

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: “*Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditenteak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditenteak, behar bezala arrazoitua*”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “*Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...*”.

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, administrazio baldintza partikularren pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorriz.



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

## V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

**Epea:** Kontratuak bi urteko iraupena izango du hura formalizatzen denetik kontatzen hasita; hala ere, beste bi urtez luzatzeko aukera aurreikusten da.

**Balio zenbatetsia:** Kontratuaren balio zenbatetsia **1.927.163,41** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak

izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

Kosten artean sartzen da, halaber, "otros" kontzeptua, kontrol-

zentroaren balizko gastuei edo beste osagarri edo tresna batzuei erreferentzia egiten diena.

SPKLren 102.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratuaren prezioa aldatu egingo da diru-bilketako helburuak betetzearen arabera; beraz, helburua aldatu bada ere, benetako prezioa izateko printzipioa betetzen du. Hori dela eta, esleipendunak kontratuaren esleipen-prezioa jasoko du, baita urteko portzentaje bat ere, diru-bilketaren (eskudirua, txartela eta mugikorrerako aplikazio) eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldearen arabera. Kostu hori kontratuaren urtebeteko prezioarekin bat etorriko da beti, hau da, 571.707,42 euro.

Diru-bilketaren zifrak ezagutzeko eta, horrela, kontratuaren balio zenbatetsia lortzeko, azken sei urteetako (2017-2022) benetako diru-bilketaren koadroak sartu dira eurotan.

	contrato antiguo			contrato vigente		
	2017	2018	2019	2020	2021	2022
recaudación metálico	517.732,78	521.628,20	503.849,33	335.942,05	400.080,06	389.944,91
recaudación tarjeta de crédito	121.243,60	122.687,20	127.677,40	124.864,77	168.180,15	191.310,26
total recaudación (REC)	638.976,38	644.315,40	631.526,73	460.806,82	568.260,21	581.255,17
coste del servicio (CO)	567.516,38	569.251,97	569.637,63	460.862,40	559.822,92	542.124,89
<b>Superávit / déficit (R)</b>	<b>71.460,00</b>	<b>75.063,43</b>	<b>61.889,10</b>	<b>-55,58</b>	<b>8.437,29</b>	<b>39.130,28</b>

salario anual	ordinario		posible prórroga		salario medio
	2023	2024	2025	2026	
6 vigilantes a jornada completa y 1 a media jornada	216.253,11 €	222.740,70 €	229.422,92 €	236.305,61 €	226.180,59 €
1 auxiliar administrativo al 80% de la jornada	21.789,28 €	22.442,96 €	23.116,25 €	23.809,73 €	22.789,56 €
1 encargado al 20% de la jornada	11.139,85 €	11.474,05 €	11.818,27 €	12.172,81 €	11.651,24 €
	<b>249.182,24 €</b>	<b>256.657,71 €</b>	<b>264.357,44 €</b>	<b>272.288,16 €</b>	<b>260.621,39 €</b>
Seguridad Social	82.230,14	84.697,04	87.237,95	89.855,09	86.005,06
beneficio indust. (6%)	19.884,74	20.481,29	21.095,72	21.728,60	20.797,59
gastos generales (13%)	43.083,61	44.376,12	45.707,40	47.078,62	45.061,44
alquiler local	15.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00
mantenimiento parquímetros	40.000,00	40.000,00	40.000,00	40.000,00	40.000,00
Materiales / otros	5.000,00	5.000,00	5.000,00	5.000,00	5.000,00
	<b>454.380,73 €</b>	<b>466.212,15 €</b>	<b>478.398,52 €</b>	<b>490.950,47 €</b>	<b>472.485,47 €</b>

Se ha aplicado un incremento anual del 3% para el cálculo de todas las magnitudes del contrato, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente los precios, se ha calculado el precio para cada uno de esos 4 años y se ha realizado el promedio de los mismos. Sobre este precio promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja. Estos precios, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerán invariables durante toda la duración del contrato.

ESKUBAC9276a-5d98-4871-a696-b74c710e6a47



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatu ahal izateko, lehen aipatutako ehunekoak barne, honako datu hauek hartzen dira erreferentziatzat:

- Zerbitzuaren urteko kostua (CO) = Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua = 571.707,42 euro, BEZa barne
- Diru-bilketa (REC): eskudirutan nahiz kreditu-txartelen bidez bildutako zenbatekoak.
- Eraitza (R) = REC-CO
- R negatiboa bada, hau da, zerbitzuan defizita badago, hori Udalak hartuko du bere gain.
- R positiboa bada, hau da, zerbitzuan superabita badago, Udalari emango zaio, baina esleipendunak ehuneko bat jasoko du superabit horren gainean, taula honetan ezarritakoaren arabera:

Eraitza (R)	Esleipendunak jaso beharreko ehunekoak
R 10.000 euro edo gehiagokoa (BEZa barne) eta 20.000 eurotik (BEZa barne) beherakoa bada	%5
R 20.000 euro edo gehiagokoa (BEZa barne) eta 50.000 eurotik (BEZa barne) beherakoa bada	%10
R 50.000 euro edo gehiagokoa (BEZa barne) eta 80.000 eurotik (BEZa barne) beherakoa bada	%15
R 80.000 eurotik gorakoa bada (BEZa barne)	%20

Aurreko datuetatik, guztietan handiena erabiliz (2018. urteari dagokiona), R = 75.063,43 euro ateratzen da, hortaz, adjudikaziodunari ordaindu beharreko prima hau izango litzateke:

$((75.063,43 / 1,21) \times 15\%) = 9.305,38$ euro/urtean.	4 urtetan: 37.221,54 euro
---	---------------------------

PPTO. BASE LICITACIÓN						VALOR ESTIMADO	
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	4 años sin IVA	4 años con IVA	primas	
472.485,47	571.707,42	944.970,94	1.143.414,83	1.889.941,88	2.286.829,67	37.221,54	1.927.163,41





TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.143.414,83 euro**, horietatik, 944.970,94 euro printzipalari dagozkio, eta 198.443,89 euro BEZari (%21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0400.227.07.133.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

#### **VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA**

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta administrazio baldintza partikularren pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, sei hilabetetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen ez baitu.

#### **VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua aztertu dira, kontuan



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

### **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 693.160,47 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, zeinak udal kontuhartzailearen eta oniritzia duen, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.** Onartzea Tolosako udalerriko zenbait bide publikotan ibilgailuen aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeko (TAO) zerbitzu-kontratuaren espedientea eta lizitazioari hasiera ematea.

**Bigarrena.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

**Epea:** Kontratuak bi urteko iraupena izango du hura formalizatzen denetik kontatzen hasita; hala ere, beste bi urtez luzatzeko aukera aurreikusten da.

**Balio zenbatetsia:** Kontratuaren balio zenbatetsia **1.927.163,41** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan

xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

salario anual	ordinario		posible prórroga		salario medio
	2023	2024	2025	2026	
6 vigilantes a jornada completa y 1 a media jornada	216.253,11 €	222.740,70 €	229.422,92 €	236.305,61 €	226.180,59 €
1 auxiliar administrativo al 80% de la jornada	21.789,28 €	22.442,96 €	23.116,25 €	23.809,73 €	22.789,56 €
1 encargado al 20% de la jornada	11.139,85 €	11.474,05 €	11.818,27 €	12.172,81 €	11.651,24 €
	<b>249.182,24 €</b>	<b>256.657,71 €</b>	<b>264.357,44 €</b>	<b>272.288,16 €</b>	<b>260.621,39 €</b>
Seguridad Social	82.230,14	84.697,04	87.237,95	89.855,09	86.005,06
beneficio indust. (6%)	19.884,74	20.481,29	21.095,72	21.728,60	20.797,59
gastos generales (13%)	43.083,61	44.376,12	45.707,40	47.078,62	45.061,44
alquiler local	15.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00
mantenimiento parquímetros	40.000,00	40.000,00	40.000,00	40.000,00	40.000,00
Materiales / otros	5.000,00	5.000,00	5.000,00	5.000,00	5.000,00
	<b>454.380,73 €</b>	<b>466.212,15 €</b>	<b>478.398,52 €</b>	<b>490.950,47 €</b>	<b>472.485,47 €</b>

Se ha aplicado un incremento anual del 3% para el cálculo de todas las magnitudes del contrato, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente los precios, se ha calculado el precio para cada uno de esos 4 años y se ha realizado el promedio de los mismos. Sobre este precio promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja. Estos precios, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerán invariables durante toda la duración del contrato.

PPTO. BASE LICITACIÓN						primas	VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	4 años sin IVA	4 años con IVA		
472.485,47	571.707,42	944.970,94	1.143.414,83	1.889.941,88	2.286.829,67	37.221,54	1.927.163,41

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.143.414,83** euro, horietatik, 944.970,94 euro printzipalari dagozkio, eta 198.443,89 euro BEZari (%21).



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0400.227.07.133.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde behar du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

**Hirugarrena.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua.

**Laugarrena.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean, lizitatzailleek beren proposamenak 36 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**Bosgarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Hiritarren Segurtasuna eta Udaltzaingoa Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

#### **4. ONARTZEA 2022. URTEKO ASFALTATZE KANPAINAKO HONDAKINEN KUDEAKETA-PLANA ZEIN SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA.**

ESPEDIENTEA:	2022OASI0004
MOTA:	Obra kontratua: ireki sinplifikatua
TITULUA:	2022ko asfaltatze kanpaina
KOKAPENA:	Tolosa
SUSTATZAILEA:	Tolosako Udala
PROIEKTU EGILEAK:	Andoni Amutxastegi eta Joxe Mari Otaegi (Tolosako Udala)
KONTRATISTA:	Asfaltia SL
ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA:	Andoni Amutxastegi eta Joxe Mari Otaegi (Tolosako Udala)

---

HONDAKINEN JABEA:	Asfaltia SLHONDAKINAK KUDEATZEKO PLANAREN
EGILEA:	Leire Sanz (Asfaltia SL)
KUDEAKETA EGOKIAREN	
ARDURADUNA:	Leire Sanz (Asfaltia SL)
SEGURTASUN ETA OSASUN	
PLANAREN EGILEA:	David Vicente



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

## OBRAKO SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEA:

Joseba Ugarte  
(Segurtasuna Koordinazioak SL)

### AURREKARIAK

- Asfaltatze lanak esleitu ondoren (2022OASI0011), 2023ko apirilaren 11n obra-kontratua Udalaren eta Asfaltia SL enpresako ordezkariak sinatu zuten.

- 2023ko apirilaren 19an, David Vicentek 2022ko asfaltatze kanpainaren segurtasun eta osasun plana idatzi zuen.

- 2023ko apirilaren 20an, Leire Sanzek, Asfaltia S.L. enpresaren Kalitate eta Ingurumen Saileko teknikaria, Hondakinen kudeaketa plana idatzi zuen.

- 2023ko apirilaren 25ean, Joseba Ugartek, obrako segurtasun eta osasun koordinatzailea, planaren inguruko txostena idatzi zuen.

### AZTERKETA TEKNIKOA

2023ko apirilaren 27an, udal ingeniariak egindako txostenean (AA23\_015) honakoa jaso zen:

#### **HONDAKINEN KUDEAKETA**

Plana 112/2012 Dekretuan aurreikusitako moduan idatzi da, eta aztertu ondoren, horrekin ados dagoela adierazten da, onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituelako.

112/2012 Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hondakinen kudeaketa egokiaren arduraduna Leire Sanz da, Asfaltia S.L. enpresako langilea.

Plan hori obraren kontratu-dokumentuetan sartuko da, hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera. Dokumentu horiek obra-zuzendaritzari eta Jabetza Onartuari eta Hondakinen Kudeatzaileari emango zaizkie.

Ohartarazten da, obra gauzatzeko prozesuaren, lanen bilakaeraren edo obrak egin bitartean sor daitezkeen gorabeheren eta aldaketen arabera, onartutako Eraikuntzako Hondakinak Kudeatzeko Planean Kontratuaren bidez egin nahi den edozein aldaketa egiteko, beharrezkoa izango dela obra-zuzendaritzaren onespena eta jabetzaren onarpena, benetan aplikatu dadin.



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

Txosten honen xede den Eraikuntzako Hondakinak Kudeatzeko Plana obran bertan egon beharko da, kontratistaren edo hura ordezkatzaren duen pertsonaren esku, eta Obraren Zuzendaritzaren eskura egon beharko du etengabe, bai eta lehen aipatutako langileen eta prebentzio-zerbitzuen, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailearen eta autonomia-erkidegoko arlo horretako organo teknikoaren eskura ere.

### **SEGURTASUN ETA OSASUNA**

Udalak jaso du Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Plana, goiburuan adierazitako obrakoa, enpresa kontratistaren ordezkariaren eskutik. Plan hau lan arriskuen prebentzioan goi tekniko den David Vicentek idatzi du. Planak ezarritako Segurtasun eta Osasun Azterlana garatzen du, 1627/1997ko Errege Dekretuan aurreikusitako baldintzen arabera, 31/1995eko Lan Arriskuen Prebentziorako Legean eta 39/1997ko Errege Dekretuko araudian jasotakoan oinarrituta.

Planak Obrako Segurtasun eta Osasun koordinatzailearen onspena du, 2023ko apirilaren 25ean sinatutako txostenean adierazita.

1627/97 Errege Dekretuaren arabera, Segurtasun- eta osasun-plana obra hasi aurretik onartu beharko du obrako segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak. Udalaren obren kasuan, plana, obra egin bitartean segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailearen txostenarekin batera, obra esleitu duen udalari helaraziko zaio, onar dezan.

Beraz, obra hasteko beharrezkoa da Udalak segurtasun eta osasun-plana onartzea”.

Adierazitako aurrekariak zein egindako azterketa teknikoa ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** Onartzea 2023ko apirilaren 20an, Leire Sanzek, Asfaltia S.L. enpresaren Kalitate eta Ingurumen Saileko teknikariak idatzitako, Hondakinen kudeaketa plana.

**BIGARRENA.-** Onartzea 2023ko apirilaren 19an, Asfaltia S.L.-k aurkeztutako 2022ko asfaltatze kanpainaren segurtasun eta osasun plana, obrako segurtasun eta osasun koordinatzailearen txostenarekin batera.



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea interesdunari.

## **5. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

### **2023/889 DEKRETUA: 2023/8 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2023/889 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0002

### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

8. zenbaki duena, 279.065,28 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

### **EBAZTEN DU:**

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

8. zenbaki duena, 279.065,28 eurokoa



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Zinegotzi delegatua*

*Begoña Tolosa Mendia*

*Nire aurrean,  
idazkari akzidentala*

*Karmele Contreras Goikoetxea*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2023/969 DEKRETUA: 2023/9 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2023/969 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,** Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

9. zenbaki duena, 210.733,37 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau





TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

**EBAZTEN DU:**

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

9. zenbaki duena, 210.733,37 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,  
idazkaría

Begoña Garmendía Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2023/992 DEKRETUA: 2023/10 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2023/992 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,** Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatezaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

10. zenbaki duena, 3.593,40 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0010

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau*

**EBAZTEN DU:**

**LEHENA.-** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*10. zenbaki duena, 3.593,40 eurokoa.*

**BIGARRENA.-** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

*Zinegotzi delegatua*

*Begoña Tolosa Mendía*

*Nire aurrean,  
idazkaria*

*Begoña Garmendia Vázquez*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUbac9276a-5d98-4871-a696-b74c710e6a47**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023IGBA0010-2023-05-02 Gobernu batzarra akta/2023-05-02 Gobernu